DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduak
Prevención, Extinción de Incendios y Salvamentos

Otxoki pas., 100 | Tel. 943483920 | suhiltzaileak@donostia.eus - www.donostia.eus/suhiltzaileak
20015 Donostia / San Sebastián

PROZEDURA SINPLIFIKATUAREN BIDEZ DONOSTIAKO PSISZRAKO HIRU FURGOI ESKURATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Baldintza agiri honen xedea da Donostiako Udaleko Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua (PSISZ) hiru furgoiz hornitzeko kontratuan arautu beharreko baldintza teknikoak zehaztea.

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA LOTEAK:

Hauek dira hornitu beharreko ibilgailuak (loteka eta bereizita eskaini beharrekoak):

- 1. lotea:

4x4 furgoi bat, altueran/mendian erreskate-materiala garraiatzeko.
Lizitazioaren gehieneko prezioa: 55.000,- €. (% 21ko BEZa barne).
Zerbitzua: PSISZ.

- 2. lotea:

4x4 motako aginte-ibilgailu bat, furgoi konbinatua.
Lizitazioaren gehieneko prezioa: 60.000,- €. (% 21eko BEZa barne).
Zerbitzua: PSISZ.

- 3. lotea:

Pertsonak eta materiala garraiatzeko furgoi elektrikoa.
Lizitazioaren gehieneko prezioa: 53.000,- €. (% 21ko BEZa barne).
Zerbitzua: PSISZ.

Besterik adierazi ezean, baldintza teknikoen agiri honetan araututakoa hiru loteei aplikatuko zaie.

2. OINARRIZKO EZAUGARRIAK:

Lote bakoitzerako ondoren zehazten diren gutxieneko baldintza teknikoez gain, hiru furgoiek beharrezkotzat jotzen diren elementu eta mekanismo guztiak izan beharko dituzte, betiere ibilgailu motordunei buruzko araudi guztiak betetzen badituzte.

2.1.- 1. lotea: 4x4 furgoia, BGM 3500 kg-koa. Ibilgailuak 3,5 tonako homologazioa izan beharko du.

2.1.1.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

- Karga-eremuaren altuera ez da 1.900 mm-tik beherakoa izango.
- Karga-eremuaren luzera ez da 3.400 mm-tik beherakoa izango.
- Eserleku-kopurua: hiru.
- Ateak: Aurreko bi ate, alboko ate irristaile bat eta atzeko atea (orri bat edo bi).
- Erregai mota: diesela.
- Gutxienez 2.000 zentimetro kubikoko zilindrada.
- Potentzia: 160 ZP edo gehiago.
- Abiadura-kaxa: automatikoa
- Direkzioa: lagundua.
- Trakzioa: 4x4 erabatekoa

10740n XVII

- Ixte-sistema: zentralizatua.
- Beira jasogailua: elektrikoa aurreko ateetan.
- Freno sistema: blokeoaren kontrako freno sistema edo antzekoa.
- Egonkortasuna eta trakzioa kontrolatzeko sistema elektronikoak.
- Bigarren bateria instalatuta eduki behar du.
- Maldan gora eta maldan behera abiatzeko laguntza-gailua.
- Larrialdiko balaztatze-laguntzailea.
- Bidaia-abiaduraren kontrola, abiadura-mugagailuarekin.
- Zehar-haizearen aurkako gailu laguntzailea.
- Nekea atzemateko sistema.
- Aire girotua, klimatizagailua edo antzekoa kabinan.
- Pintura: Ibilgailuaren kolorea RAL 3000 izango da. Zerbitzuaren onespena duen antzeko gorri kolore batekin ordeztu ahal izango da.
- Kutsadura: Euro 6 edo goragokoaren arabera homologatuta.

2.1.2.- KARROZERIA ETA EKIPAMENDUA

- Eserlekuek buru-euskarria izango dute.
- Bolante erregulagarria.
- Atzerako ispilu termikoak.
- Atzeko ateak 270º arte ireki ahal izan beharko dira.
- Eguraldi mota guztietarako egokiak diren pneumatikoak.
- Atzeko kamera.
- LED motako aurreko argi nagusiak.
- Kabinaren gainean 2 argi birakari urdin.
- Airbaga gidariarentzat eta laguntzailearentzat, laguntzailearen airbaga desaktibatuta.
- Ezaugarri hauek dituzten bi irrati-ekipo instalatuko dira:

  - UHF 403-470MHz PMR terminal-ekipo mugikorra, 4-6 kanal, azpitonuak. 403-470MHz UHF. RF 1-25W-ko irteera-potentzia. Kanpoko antena.

  - TETRA terminal-ekipoa, teklatua, pantaila, osagarrien konektorea eta GPS integratua I. RFko irteera-potentzia minimoa 3W. 380-430MHz banda-zabalera. DMO Gateway edo DMO Repeater funtzioekin. TETRA antenan integratutako kanpoko GPS antena.

  - Instalazioa kabinarekiko zentratuta egingo da, gidariak eta laguntzaileak erabiltzeko modukoa izan dadin, eta ez da aurreko panelean jarriko.

  - Suhiltzaile Zerbitzuak emango du TETRA terminala.

2.2.- 2. lotea: Furgoi motako ibilgailu mistoa, 4x4, BGM 3200 kg-koa. Ibilgailuak 3,2 tonako homologazioa izan beharko du.

2.2.1.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

- Plaza-kopurua: bost.
- Karga-eremua tripulazio-gunetik bereizita egongo da.
- Ateak: Bost ate izan beharko ditu. Aurreko bi ate, alboko ate irristaile bat eta bi atzeko ate.
- Erregai mota: diesela.
- Gutxienez 2.000 zentimetro kubiko zilindrada.
- Potentzia: 150 ZP edo gehiago.
- Abiadura-kaxa: automatikoa
- Direkzioa: lagundua.
- Trakzioa: 4x4 erabatekoa

- Ixte-sistema: zentralizatua.
- Beira jasogailua: elektrikoa aurreko ateetan.
- Freno sistema: blokeoaren kontrako freno sistema edo antzekoa.
- Egonkortasuna eta trakzioa kontrolatzeko sistema elektronikoak.
- Maldan gora eta maldan behera abiatzeko laguntza-gailua.
- Larrialdiko balaztatze-laguntzailea.
- Zehar-haizearen aurkako gailu laguntzailea.
- Aire girotua, klimatizagailua edo antzekoa kabinan.
- Pintura: Ibilgailuaren kolorea RAL 3000 izango da. Zerbitzuaren onespena duen antzeko gorri kolore batekin ordeztu ahal izango da.
- Kutsadura: Euro 6 edo goragokoaren arabera homologatuta.

2.2.2.- KARROZERIA ETA EKIPAMENDUA

- Eserlekuek buru-euskarria izango dute.
- Bolante erregulagarria.
- Atzerako ispilu termikoak.
- Atzeko ateak 270º arte ireki ahal izan beharko dira.
- Eguraldi mota guztietarako egokiak diren pneumatikoak.
  Atzeko kamera.
- 13 poloko konektorea duen atoirako bola-kakoa.
- Kabinaren gainean 2 argi birakari urdin.
- Airbaga gidariarentzat eta laguntzailearentzat, laguntzailearen airbaga desaktibatuta.
- Ezaugarri hauek dituzten bi irrati-ekipo instalatuko dira:

  - UHF 403-470MHz PMR terminal-ekipo mugikorra, móvil,4-6 kanal, azpitonuak. 403-470MHz UHF. RF 1-25W-ko irteera-potentzia. Kanpoko antena.

  - TETRA terminal-ekipoa, teklatua, pantaila, osagarrien konektorea eta GPS integratua I. RFko irteera-potentzia minimoa 3W. 380-430MHz banda-zabalera. DMO Gateway edo DMO Repeater funtzioekin. TETRA antenan integratutako kanpoko GPS antena.

  - Instalazioa kabinarekiko zentratuta egingo da, gidariak eta laguntzaileak erabiltzeko modukoa izan dadin, eta ez da aurreko panelean jarriko.

  - Suhiltzaile Zerbitzuak emango du TETRA terminala.

2.3.- 3. lotea: Pertsonak eta materiala garraiatzeko furgoi elektrikoa.

2.3.1.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

- Plaza-kopurua: zortzi. Lehen lerroa: Gidaria + kopilotua. Bigarren lerroa: 3 plaza. Hirugarren lerroa: 3 plaza.
- Ateak: Bost ate izan beharko ditu. Aurreko bi ate, alboko bi ate eta atzeko ate bat.
- Gutxieneko tamaina: Luzera: 4.700 eta 5.200 mm artean. Zabalera: 1.900 eta 2.000 mm artean. Altuera: 1.850 eta 1.9500 mm artean.
- Gehieneko pisua 2.000 kg.
- Motor elektrikoa.
- Autonomia elektrikoa: 200 km-tik gorakoa.
- Gehieneko potentzia: 100KW.
- Bateria: Gutxieneko kapazitatea 50KWh
- Abiadura-kaxa: automatikoa.
- Direkzioa: lagundua.
- Trakzioa: Aurrekoa.

- Ixte-sistema: zentralizatua.
- Beira jasogailua: elektrikoa aurreko ateetan.
- Freno sistema: blokeoaren kontrako freno sistema edo antzekoa.
- Egonkortasuna eta trakzioa kontrolatzeko sistema elektronikoak.
- Maldan gora eta maldan behera abiatzeko laguntza-gailua.
- Larrialdiko balaztatze-laguntzailea.
- Aire girotua, klimatizagailua edo antzekoa kabinan.
- Pintura: Ibilgailuaren kolorea RAL 3000 izango da. Zerbitzuaren onespena duen antzeko gorri kolore batekin ordeztu ahal izango da.
- Kutsadura: Euro 6 edo goragokoaren arabera homologatuta.

2.3.2.- KARROZERIA ETA EKIPAMENDUA

- Eserlekuek buru-euskarria izango dute.
- Bolante erregulagarria.
- Eguraldi mota guztietarako egokiak diren pneumatikoak.
- Atzeko ikuspen-kamera.
- 13 poloko konektorea duen atoirako bola-kakoa.
- 380 V-eko kargagailu trifasikoa eta elikadura trifasikoko kablea.
- Kabinaren gainean LED motako bi argi birakari urdin.
- Airbaga gidariarentzat eta laguntzailearentzat, laguntzailearen airbaga desaktibatuta.
- Ezaugarri hauek dituzten bi irrati-ekipo instalatuko dira:

  - UHF 403-470MHz PMR terminal-ekipo mugikorra, móvil,4-6 kanal, azpitonuak. 403-470MHz UHF. RF 1-25W-ko irteera-potentzia. Kanpoko antena.

  - TETRA terminal-ekipoa, teklatua, pantaila, osagarrien konektorea eta GPS integratua I. RFko irteera-potentzia minimoa 3W. 380-430MHz banda-zabalera. DMO Gateway edo DMO Repeater funtzioekin. TETRA antenan integratutako kanpoko GPS antena.

  - Instalazioa kabinarekiko zentratuta egingo da, gidariak eta laguntzaileak erabiltzeko modukoa izan dadin, eta ez da aurreko panelean jarriko.

  - Suhiltzaile Zerbitzuak emango du TETRA terminala.

3. DOKUMENTAZIOA

Esleipendun suertatuz gero, honako dokumentu hauek aurkeztuko dira ibilgailua entregatzen den unean:

3.1. Berme-ziurtagiria
Bermeak txasisa eta ekipamendu berezia estaliko ditu, gutxienez bi urtez.
Kanpoan geratzen da ibilgailua gaizki erabiltzeagatik edo istripua izateagatik ibilgailuaren hornitzaileari egotzi ezin zaion konponketa.

3.2 Funtzionamenduari buruzko eskuliburua
Gaztelaniaz edo euskaraz idatzita, ibilgailuaren eta ekipamendu bereziaren mantentze-lanak nola egin behar jasoko ditu, bai eta ibilgailuaren funtzionamendu egokirako beharrezkotzat jotzen den guztia ere.

3.3 Ekipamendu bereziaren legeztapena
Enpresa adjudikaziodunak ibilgailua eta ekipamenduak homologatzeko edo legeztatzeko gastu guztiak kudeatu eta ordainduko ditu, eta dokumentazio hori ibilgailuaren jasotze-aktan sartuko da.

Baldintza teknikoak betetzen ez badira, kontratua baliogabetu egingo da.

4. BERME-EPEA

- Bermearen gutxieneko epea:

Bi (2) urte, ibilgailuak jasotzen direnetik.

Era berean, 3. loterako, zortzi (8) urteko bermea ibilgailuaren baterietarako.

5. JASOTZEA ETA ENTREGATZEA

Gehienez ere 10 hilabeteko epea ezartzen da furgoi bakoitza entregatzeko.

Furgoiak Donostiako Suhiltzaile Etxean entregatu beharko dira (Otxoki pasealekua 100, 20015 Donostia-San Sebastián).

Solaskidea:

Beatriz Ayala Abarrategui

Harremanetarako, helbide elektroniko hau erabili: beatriz_ayala@donostia.eus

Donostian, 2021eko azaroaren 23an.

PSIZSeko inspektoreordea

BEATRIZ AYALA ABARRATEGUI - 72447821Y

Digitalki sinatuta norengandik: BEATRIZ AYALA ABARRATEGUI - 72447821Y
Data: 2022.02.16 09:52:52 +01'00'

Beatriz Ayala Abarrategui